



**TOLOSAKO UDALEKO BI GIDARI PERTSONAL BALIOANIZTUN PLAZA BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.**

**LEHENA.- Deialdiaren helburua.**

Oinarri hauen helburua Tolosako Udaleko bi gidari pertsonal balioaniztun plaza behin-behineko izaeraz betetzea da.

Lanpostuek ezaugarri hauek dituzte:

- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Zerbitzu Bereziak
- Saillapen-taldea: C2
- Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, eskola-graduatu, lehen mailako lanbide-heziketa edo parekatua.
- Baldintzak: C gidabaimena
- Ordainsariak: C2 taldea; lanpostu-mailako osagarria, 17; Berariazko osagarria, 18.844,00 euro urtean.
- Lan-harremana: laborala edo funtzionarioa

Bete beharreko lanpostuetako bat behin betikoz bete arteko hutsunea da. Bestea, aldiz, ordezkapena.

Eguneko lanaldia Tolosako Udalak ezartzen duena izango da, beti ere zerbitzuaren izaera eta beharrian espezifikokoak kontuan izanda.

**BIGARRENA.- Lanpostuaren eginkizunak.**

Lanpostuek honako eginkizun hauek guztiak izango dituzte:

**Erantzukizun orokorrak:**

- Udal-azpiegituren mantentze- eta kontserbazio-lanak egitea, ibilgailuak gidatzea batez ere.

**Lan esanguratsuenak:**

**GIDATZEA:**

1. Langileak eta materiala garraiatzeko ibilgailuak, furgonetak eta kamioiak gidatzea, eta obra-makineria gidatzea (orga jasotzailea, dunperra, etab.).
2. Garraio eta zamalanekin lotutako lanak egitea: askotariko materialak (artxiboak, administrazio-bulegoetako altzariak, karpak, armairuak, etab.), erregai arriskutsuen edukiontzia, konglomeratu asfaltiko beroa, komunerako modulu eramangarriak, inauterietako karrozak, etab.



3. Ibilgailuei egokitzen zaizkien sistema osogarriak maniobratzea.
4. Unitateko ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak (mailak egiaztatzea, gurpilen presioa, olio-aldaketak, ibilgailua koipeztatzea, etab.) eta garbiketa egitea.
5. Hondakin organikoetarako poltsa konpostagarriak garraiatzea ondoren banatzeko.

**MUNTAKETA:**

6. Agertokiak muntatu eta desmuntatzea, ekitaldiak, azoka bereziak, herriko jaiak, hauteskundeak eta abar egiteko.
7. Instalazioak muntatzeko lanak egitea zenbait ekitaldi egiteko: hauteskunde-panelak, karpak, instalazio artistikoak, bolei-pistak, etab.
8. Aldi baterako egiturak eraiki eta desegitea (aldamioak, eskoratzeak, trafiko-hesiak, obra-itxiturak, etab.).

**MANTENTZE-LANAK:**

9. Langile polibalenteko lanpostuaren funtzioak egitea, zerbitzuetan horrela behar denean.

**EGINKIZUN KOMUNAK:**

10. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
11. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
12. Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
13. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
14. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
15. Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, alde zuzenetik horretarako jarraibideak jasota.

**HIRUGARRENA.- Izangaien betebeharrak**

Hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Nazionalitate espainiarra edukitzea, edo beste edozein estatutakoa, baldin eta Europar Batasunak formalizatutako nazioarteko itunen baten arabera aplikaziozkoa bada langileen joan-etorri askea, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean zehaztutako eran.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez



badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

b) 16 urte beteta edukitzea.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, eskola-graduata, lehen mailako lanbide-heziketa edo parekatua edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

d) C gidabaimena.

e) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaiak, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.

f) Diziplina-espedita bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaiuntzarik ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea desgaiuntzarik edo antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Izangaiak beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostuaz jabetu arte bete beharko dituzte.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berarekin hitz egin eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

### **LAUGARRENA.- Epaimahai kalifikatzailearen osaera**

- Lehendakaria: Giza Baliabideetako Arduraduna edo berak izendatutako ordezkia

- Mahaiko kideak:

- Tolosako Udaleko arkitekto tekniko bat

- Tolosako udaleko Hirigintza/Obrak departamentuko langile bat

- Idazkaria: Giza Baliabideetako teknikaria edo berak izendatutako ordezkia

Epaimahaiaren jarduketa-prozedura Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan zehaztutakora egokituko da beti.

Enplegu Zerbitzu Publikoek aurrez hautatutako izangaiak epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzak gertatzen direnean.



Epaimahaiaren ardura izango da ariketen garapenean sor daitezkeen gorabeherak aztertzea, egiaztatzea eta balioestea, eta egokitzat jotzen dituen erabaki arrazoituak hartzea.

### **BOSGARRENA.- Izangaiak aukeratzea**

Lanpostuak betetzea premiazkoa denez, Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez (LANBIDE), hautagaiak eskatu eta dagokion hautaketa-proba egingo da.

Beraz, zerbitzu horrek hautatutako izangaien artean egingo da aukeraketa.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak Lanbideren datu basean agertu beharko dute (hautagaiaren Curriculum Vitae), kontuan hartu ahal izateko.

Ondoren, udalak onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda egin eta argitaratuko du udalaren webgunean, oposizio-proba egingo den egunarekin eta tokiarekin batera.

3 egun balioduneko epea ezarriko da, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki diren erreklamazioak jartzeko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki.

### **SEIGARRENA.- Oposizio-faseko proba**

Proba hau nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Lanpostuari atxikitako eginkizunen inguruan ariketa praktiko bat edo gehiago egingo dira, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera eta 0 puntutik 60 puntura baloratuko da; beraz, 30 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak hautaketa-prozesutik kanporatuak izango dira.

### **ZAZPIGARRENA.- Jakinarazpenak**

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Tolosako Udalaren web orriaren bitartez egingo dira.

### **ZORTZIGARRENA.- Emaitzak argitaratzea eta berrikustea**

Probaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez 3 egun balioduneko epea ezarriko da azterketak berrikusteko, eta, ondoren, erreklamazioak egiteko 3 egun balioduneko epea, azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiburuari, Herritarren Arretarako Bulegoan (UDATE), edo epaimahaiko idazkariari, ofizialki erregistratu ditzan. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira.



Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira automatikoki. Proba amaitu ondoren, epaimahaiak hura gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du, lortutako guztizko puntuazioaren arabera. Era berean izendapen-edo kontratazio-proposamenak ere egingo ditu epaimahaiak.

### **BEDERATZIGARRENA.- Dokumentazioa aurkeztea**

Hautagaiek Enplegu Zerbitzu Publikoan (LANBIDEN) aurkeztu beharko dituzte laugarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten dokumentuak.

### **HAMARGARRENA.- Kontratazioa/ Izendapena**

Alkatetzak kontratatuko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaiak, laugarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituztela ziurtatu ondoren eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta gero.

### **HAMAIKAGARRENA.- Gertakariak eta legeria osagarria**

Epaimahaiak ahalmena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den gaitan.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena; 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

### **HAMABIGARRENA.- Deialdiaren inpugnazioa.**

Interesdunek inpugnatu egin ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko eta epaimahaiaren jardunbidearen ondoriozko ekintza administratiboak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriak 1ekoa, dioen kasuetan eta moduan.

Tolosan, sinadura datan